

Galduta

Amaia Labat Aldunate
DBH 3. eta 4. kurtsoak 1. saria
Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola

Pentsamenduaren neurrigabetasunean galtzea,
taupada ezinezkoa baretzeko,
infernuaren ahotik ateratzeko,
aske izaten saiatzeko.

Kontrako hitzez ahaztea,
negarra betiereko irriz estaltzeko.

Goibelalditik zentzugabetara pasatu,
bi mundo debekatueta sartzeko.

Galduta,

galduta, berriz ere

izerdiz sorturiko itsasoan

bere larruaren egurats zerrepelean

bere neskato ahotsean,

bere emakumezko gorputzean,

bere izatearen unibertsoan,

maitasun batean izan ezin duena

baina nahi izan bai.

Galduta,

bere musuen kolorea berreskuratuzeko,

laztan baten zaporea birlortzeko,

besarkada baten balorea urtzen ari diren gorputzetan

suspertzeko,

Amodioa, amodioa saiatu gabe.

Egoatea aditu gabe
ulertu gabe
deszifratu gabe
arrazoitu gabe,
denboran galdu zen egona
eta gaur berriz egoten dena,
gau bateko ustekabeko desioatik urruti,
suertatze batetik urruti,
Berarekin egoatea eta ez inorekin gehiago,
eta ezer gehiago ez.
Bere ezpainetako ilargi txurira bidaiatzea,
bere sabelean korapilatu, bere eskuetan,
bere begietan.
Denborarik gabeko munduetan amestea,
dena izan ahal dela ustea
nahiz eta ahal izatea ezin izan.
Ilusioa ezereztatu,
eta berriz ilusionatu.
Mina suntsitzea, arrenkura, eta amodioa.
Harago joateko
non gorputzek hitz egiten duten
non begiradek dena esaten duten
non esentzia goxoek gobernatzen duten.

Han, non zerua, infernua eta pekatua
nahasten diren,
non instintua kontrolaezin bihurtzen den,
eta arauak zapaltzen diren.
Non maite ahal izango dudana.
Eta berriz ere galdu.
Non hil naitekeen
eta berehala birjaio.
Zugan, berriz ere,
galduta.